# ERANTZUNA (35)

**Proyecto de Acompañamiento a Mayores de Cáritas Abando-Albia**

# 1998-2023: CELEBRAMOS 25 AÑOS DE COMPROMISO COMPARTIDO

**No es fácil que un grupo de personas que se encuentran para llevar a cabo una tarea de forma voluntaria llegue a cumplir 25 años. Por eso, desde el proyecto de Acompañamiento a personas mayores de Abando-Albia estamos de celebración y queremos compartirla con todos/as vosotros/as.**

## ***Un poco de historia:***

En 1998 se formó un equipo de Cáritas para trabajar con personas mayores en las parroquias de lo que por entonces se denominaba 'Sector' Abando-Albia, ya que se había detectado una creciente presencia de personas mayores en el barrio a las que se podría acompañar, tanto en domicilios como en residencias o pisos comunitarios, que abundaban en la zona. Quienes empezaron fueron conscientes de que, a medida que envejecemos, nuestras relaciones van cambiando y que, aunque haya personas que nos cuiden, necesitamos mantener el contacto y estar también con otras personas.

Así, se hizo una llamada en las parroquias de la zona y con las personas que se acercaron (alguna de las cuales sigue aún de voluntaria 25 años después), se empezó a trabajar en la organización y formación del equipo y, después, a acompañar a quienes lo solicitaron.

## ***¿Qué hacemos?:***

Hoy en día el grupo lo componemos una veintena de personas voluntarias, hombres y mujeres de diferentes edades, que acompañamos a otras tantas personas mayores, tanto en sus domicilios como en residencias, compartiendo tiempos de charla, paseo, lectura, algún café...

El acompañamiento se hace principalmente de manera presencial, cara a cara, pero desde hace ya unos años existe también la posibilidad del acompañamiento a través del teléfono.

Con el acompañamiento estable y organizado que ofrece el proyecto, se va generando un vínculo de confianza entre la persona acompañada y la voluntaria que a veces llega a que surja una verdadera amistad; de hecho, ha habido casos en los que esa relación entre las dos personas se ha mantenido durante años, e incluso hasta el final de la vida.

El proyecto, además de ACOMPAÑAR, trata de SENSIBILIZAR a la comunidad y a la sociedad en general sobre la realidad de las personas mayores, su situación, sus necesidades, el sentimiento de soledad, las diferentes actividades y recursos que hay para ellas, etc.

También es importante para nosotros sentirnos parte de Cáritas y compartir nuestra labor, tanto con otros proyectos de Abando-Albia como con los equipos que realizan una labor similar a la nuestra en otros barrios y pueblos de Bizkaia.

***El voluntariado, piedra angular:***

Constatamos que esta tarea, realizada por el voluntariado desde su compromiso social y desde la gratuidad, no solo es buena para las personas mayores, sino que también lo es para las personas voluntarias. ¡Cuántas veces hemos oído la expresión: "yo vine a dar y recibo también muchísimo"!

***Súmate a nuestra celebración:***

Este año llevaremos a cabo diferentes acciones para celebrar este largo recorrido y nos gustaría contar con tu presencia.

La primera será una CONFERENCIA del **Dr. Julio Gómez** titulada ***"Acoger, acompañar y sanar. Un modo de estar en el mundo"***.

Nos encontraremos el **jueves 30 de marzo, a las 18:00 horas**, en los locales de la Iglesia de San Francisco Javier. Al finalizar tendremos ocasión de compartir un rato de conversación.

Desde Cáritas de Abando-Albia os animamos a celebrar estos 25 años con nosotros/as, a conocer este proyecto y participar en él. Podéis contactarnos en los teléfonos 94 402 00 74 y 688 68 23 81, o en el correo electrónico pcastro@caritasbi.org

# ERANTZUNA (35)

## Abando-Albiako Caritaseko Edadetuei Lagun Egiteko Proiektua

# 1998-2023: 25 URTEKO KONPROMISO PARTEKATUA OSPATZEN DUGU

**Ez da erraza zeregin bat borondatez egiteko elkartzen diren pertsona talde batek 25 urte betetzea. Horregatik, Abando-Albiako Edadetuei Lagun Egiteko proiektua ospatzen ari gara eta zuekin partekatu nahi dugu.**

***Historia pixka bat:***

1998an Caritasen talde bat eratu zen garai hartan "Abando-Albia" sektorea deitzen zen parrokietan edadetuekin lan egiteko. Izan ere, auzoan gero eta adineko pertsona gehiago zeudela eta haiei lagun egin ahal izan zitzaiela ikusi zen, bai etxeetan bai egoitza edo pisu komunitarioetan, inguru horretan ugari baitziren. Hasi zirenak konturatu ziren, besteak beste, zahartu ahala gure harremanak aldatuz doazela eta, zaintzen gaituzten pertsonak egon arren, beste pertsona batzuekin ere harremanak izateko beharra daukagula.

Horrela, deialdia egin zen inguruko parrokietan eta hurbildu zirenekin (haietariko baten batek oraindik ere boluntario jarraitzen du 25 urte geroago), taldea antolatzen eta prestakuntza jasotzen hasi zen eta, ondoren, eskatu zutenei lagun egiten.

***Zer egiten dugu?:***

Gaur egun hogei bat boluntariok osatzen dugu taldea, adin desberdinetako gizon eta emakumeok, eta beste hainbeste adinekori lagun egiten diegu, bai beren etxeetan bai egoitzetan, solasaldiak, paseoak, irakurketak, kaferen bat... partekatuz.

Lagun egitea aurrez aurre egiten da nagusiki, baina duela urte batzuk telefono bidez egiteko aukera ere badago.

Proiektuak eskaintzen duen laguntza egonkor eta antolatuarekin konfiantzazko loturak sortzen dira lagundutako pertsonaren eta boluntarioaren artean, eta, batzuetan, benetako adiskidetasuna sortzen da; izan ere, kasu batzuetan, bi pertsonen arteko harreman horrek urteetan iraun du, baita bizitzaren amaierara arte ere.

Proiektuak, LAGUN EGITEAZ gain, komunitatea eta gizartea, oro har, edadetuen errealitateari, egoerari, premiei, bakardade-sentimenduari, haientzako dauden jarduera eta baliabideei eta abarri buruz SENTSIBILIZATZEA du helburu.

Guretzat ere garrantzitsua da Caritasen parte sentitzea eta gure lana Abando-Albiako beste proiektu batzuekin eta Bizkaiko beste auzo eta herri batzuetan gurearen antzeko lana egiten duten taldeekin partekatzea.

***Boluntariotza giltzarri:***

Egiaztatu dugunez, boluntarioek beren gizarte-konpromisotik eta doakotasunetik egiten duten zeregin hori, adinekoentzat ez ezik, boluntarioentzat ere ona da. Zenbat aldiz entzun dugu esaldi hau: “ni ematera etorri nintzen, baina jaso ere asko jasotzen dut”!

***Bat egin gure ospakizunarekin:***

Aurten hainbat ekintza egingo ditugu ibilbide luze hau ospatzeko eta zu bertan izatea gustatuko litzaiguke.

Lehenengoa **Julio Gómez** doktorearen HITZALDIA izango da. Izenburua: ***“Hartu, lagundu eta sendatu. Munduan egoteko modu bat”***

**Martxoaren 30ean izango da, ostegunean, 18: 00etan**, San Frantzisko Xabier elizako lokaletan. Amaitutakoan, solasalditxo bat partekatzeko aukera izango dugu.

Abando-Albiako Caritasetik 25 urte hauek gurekin ospatzera, proiektu hau ezagutzera eta bertan parte hartzera animatzen zaituztegu. Gurekin harremanetan jar zaitezkete 94 402 00 74 eta 688 68 23 81 telefonoetan edo pcastro@caritasbi.org helbide elektronikoan.

**ESKERRIK ASKO!**